

Gazte!

2002ko abendua 11 zenbakia

GURE HITZA.....2

Tratu txarrak

ELKARRIZKETA.....3

Josilouli

KOMEKOKOS.....6

"Hospital Triunfo"

"Gran Hermano"

JAKIN-MINA.....9

Ana Bermejo: munduko

trinkete txapeldunordea

ALTZAN GURE SALTSAN.....11

Auditx Akular proiektua

Tomasene baserria

Fibra optikoa

Lau Aizeta parkea

IPUINEN TXOKOA.....15

Poesiak

KONEXIOAK.....18

www.audio.ya.com/timpal/

emails/email.htm

www.elrincondelvago.com

LABURREAN.....19

Zine kritika: "Lekuko bakarra"

Musikaz blai: MVT sariak

Eguzki Lore irratia Terra Mitikan

Bokata goxo-goxoak

DAVIDEN BURUTAZIOAK.....22

Erbiak eta Untxiak

TXISTE KONTARI.....23

KOMIKIAK.....24

SARIKETA.....24

2003



Nagore Claramunt

Gure hitza

Ikasleoi hitza emateko atala da hau. Zuen iritzia agertzeko tokia

Gaur, Yolanda Redondok eman digu bere iritzia.



Yolanda Redondo

Tratu txarrak

Oraingoan tratu txarrei buruz idaztea erabaki dut.

Umeei, emakumeei, gizonezkoei eta animaliei ere tratu txarrak ematen dizkieten pertsonak burutik jota daudela esango nuke nik. Egia da, tratu txar gehienak emakumeenganakoak izaten direla, eta horregatik orain dela gutxi bidegabekeria hau nozitzen duten emakume guzti hauen eguna eratu da. Zer nolako zoritxarrean bizi diren jakinaraztea da, guri eta gizarte osoari, egun horren helburua. Egia da, baita ere, behin gogoratzearekin ez dela ezer konpontzen, baina, dena den, nik uste dut egoera konpontzeko gutxi egin dezakegula.

Emakumeak jipoitzen dituzten gizonei buruz zer esan? Lehen esan dut nahikoa, edo burutik jota daude edo arazo larriren bat izan dute haurtzaroan; bestela, ezin dut ulertu nola tratatu ditzaketan horrela, maiteminduta dituzten emazte eta lagunak.

Andre hauek etxean daukaten infernu horretatik atera ahal izateko, normalean, justiziarri eskatzen diote laguntza, baina askotan ez diote behar den laguntza eta garrantzia ematen, eta azkenean gertatzen da erremediorik ez duen gauza bat; eta ez da nik asmatutakoa: aurten Espainian 56 emakume hil dituzte dagoeneko. Eta tratu txarrak egunero gertatzen dira, ondorio hain lazgarrietara iritsi gabe ere.

Eta tratu txar fisikoena da gauza bat, eta bestea tratu txar psikologikoak. Hauek ere oso kaltegarriak dira ("zuk ez duzu ezertarako balio", "gizonok gabe zer egingo zenukete zuek?"), emakumearen estima hankaz gora jartzen dutelako.

Egoera hauek hobetzeko gutxi egin daiteke. Gizon hauek sendatzea da konponbide bakarra, azken finean, pertsona gaixoak baitira.

Yolanda Redondo

Ale honetan parte hartu dute

Azala: Nagore Claramunt (5B)

Gure Hitza: Yolanda Redondo (3B)

Elkarrizketa: Nerea Cecilia (4E), Leire Rodriguez (4D), Batirtze Freiria (4B)

Komekokos: Iñaki Caracena (5B), Ander Pérez (5B), David Hernández (ikasle ohia)

Jakin Mina: Aintzane Artano (5B), Idoia Fernández (5B)

Altzan gure Saltsan: Ruth Pousadas (6B), Ana Bermejo (6B)

Ipuinen Txokoa: Saioa Agote (3C), Yanire Alonso (3C), Yolanda Redondo (3B), Sara Díaz (3B), Mainer Dominguez (3B), Alberto Manuel (3C), Sheila Franco (3B), Lorena Robles (3C), Joseba del Río (3C), David Moro (3B).

Konexioak: Iñaki Caracena (5B), Ander Pérez (5B), David Hernández (ikasle ohia)

Musikaz blai: MTV sariak: Pablo Ocampo (2C), Gemán Villegas (2C)

Zinea euskaraz: "Lekuko bakarra": Rosa Vicente (4E)

Eguzki lore irratia Terra Mitikan: Xabier Bermúdez (4E), Itziar Ferreira (4E), Aroa Berrenetxea (4E)

Daviden txokoa: David Díaz (2C)

Txiste Kontari: Mikel Pino (1B), Oscar Luque (1B), Miren H.T. (1B), Erreka Utrera (1B), Eneritz Sánchez (1B), Idoia Martínez (4D), Sonia García (4D)

KomikiaK: Urko Ruiz (4E), Igor Arrizabalaga (1C)

Koordinazio lanetan: Antton Juaristi, Bittor Fernández (Hizkuntza Normalkuntza), Patxi Sarasola (Plastika)

ELKARRIZKETA



Nerea Cecilia




Leire Rodriguez



Batirtze Freiria

ROSS



Jousilouli

Jousilouli taldeak laister kaleratuko du bere diska berria, "Terrorista" izenburupean. Gazte aldizkariko lagunok taldekide batekin egon ginen, Ross, eta elkarrizketatu genuen.

ELKARRIZKETA

GA:Noiz hasi zineten musikaren munduan?

Jousiloulirik 1995tik darama jotzen, edo lehenagotik. Hasiera batean nire kideak hasi ziren Lizeoan ikasten eta bertan hasi ziren jotzen. Gaur egungo Jousilouliren formazioa orain dela bi urte sortu zen. Jousilouli taldearen DJak aldatzen joan dira eta ni izan naiz azkena taldean sartzen.

GA:Zeintzuk osatzen duzue taldea eta zer jotzen du bakoitzak?

Felipe bajista da (Txiletarra, baina Lezon bizi da),Mikel Varelak gitarra jotzen du, Jorgek tleklatura eta programazioaren arduraduna da, Iñaki bateria, Matxet abeslaria; horrek ez du ezer jotzen, abestu besterik ez, eta ni Ross, DJ Kapo, "scratches" eta musika elektronikoaz arduratzen naiz.

GA:Zer uste duzue gaur egungo

gazteen musikari buruz?

Zer uste dugun? Ba, nire iritzia emango dut; beno, ba, zarama hutsa dela uste dut, inork kultura musikala ez duela uste dut, eta ergel bat izango balitz bezala irratian jartzen dioten guztia entzuten duela ezer ikertu gabe. Gaur egun interneti esker gero eta gehiago entzuten dira beste estilo batzuk: Jazz, Funk,... baina jendeak komertzial moduan jartzen dioten guztia entzuten jarraitzen du, eta erabat aurkakoa naiz.

GA:Zer sentitzen da eszenatokiaren gainean?

Marrubi baten zaporea deskribatzea bezain zaila da hori.Hori frogatu behar da; sentzaizio ezberdinen nahasketa bat da. Eszenatokira igotzen zarenean hasierako urduritasuna sentitu dezakezu, ondo egiteko ardura, gero gustatzen zaizkizun gauzak egitearen plazerra....




"...Gaur egun interneti esker gero eta gehiago entzuten dira beste estilo batzuk: Jazz, Funk,... baina jendeak komertzial moduan jartzen dioten guztia entzuten jarraitzen du, eta erabat aurkakoa naiz..."

ELKARRIZKETA

"... Eszenatokira igotzen zarenean hasierako urduritasuna sentitu dezakezu, ondo egiteko ardura, gero gustatzen zaizkizun gauzak egitearen plazerra...."

"...Ba, noraino? Ba, ez dakit, guztiok bezala... gustatzen zaizunarekin bizitzea, egia esan zuk gustuko duzulako, eta gero ordaindu ezkerro ba... primeran ezta?..."



GA: Noraino iritsi nahi duzue?

Ba, nik Ferrary bat erostea izango nuke gustoko. Mansio pare bat...(ak,ak,ak,ak,ak,...)
Ba, noraino? Ba, ez dakit, guztiok bezala... gustatzen zaizunarekin bizitzea, egia esan zuk gustuko duzulako, eta gero ordaindu ezkerro ba... primeran ezta?

GA: Zenbat denbora igarotzen duzue entsaiatzen?

Taldea elkarrekin dagoenean diskaren bat prestatzeko bi aldiz astero elkartzen gara, baina instrumentuak jotzen ditugunok egunero entsaiatzen dugu.

GA: Diska berri bat atera behar duzuela badakigu. Nola doa lana?

Ba, esan aste bat edo horrela grabatu genuela masterra Arrasateko "sock" estudioetan. Eta dagoeneko prest dago hurrengo abenduan ateratzeko.

GA: Berrinkuntzaren bat dago diska honetan?

Hasierako diskan baino askoz ere soinu berri gehiago sartu ditugu, bakoitzak hobeto egiten dituenekin, hip hop gehiago,....

GA: Beno, eskerrik asko gurekin egoteagatik

Agur!

Aurrerapen gisa esaten dizuegu Jousilouli taldeak abenduaren erdialdean bere bideoklipa aterako duela Euskal Herriko telebistetan.

KOMEKOKOS



Iñaki Caracena



Ander Pérez



David Hernández

HOSPITAL TRIUNFO



Aurten Operación Triunfoko parte hartzaileak kantu akademia batean ez ezik ospitale batean sartu direla ematen du. Lehenengo edizioan eduki zuen arrakasta baino askoz gutxiago da aurtengoa.

Irakasleak berdinak dira, baina partehartzaileak ezberdinak dira. Argazkian dauden bezala, Hugo, Nika, Danni Ubeda, Vega, Tessa, Elena Gadel, Miguel Nández, Manuel Carrasco, Ainhoa, Joan Tena, Marey, Beth, Tony Santos, Cristie, Enrique Anaut, Miguel Angel Silva eta Mai Meneses dira.



Instalazioek ere okerragoak ematen dute, edizio honek istripu ugari izan dituelako. Behin, entsaio orokorrean, eskaileratik jeisten ari zirenean, ziren eta Hugo, Vega, Nandez eta Joan Tena behar izan zituzten. astelehenean izan azteazkenean egin guztiz ere, egun partaidek ezin izan zuten abestu zuzenean. Orduan epaileek entsaio orokorran egindako grabaketen bidez hartu zuten nominatuen erabakia. Beste Gala batean berriz,



eskailerak puskatu Tessa, Miguel ospitalera eraman Horregatik, Gala beharrean, zuten. Hala eta horretan zenbait

KOMEKOKOS

Enrique Anaut zorobiatu zen eta ospitalera eraman behar izan zuten. Egun horretan suspenditu zuten emanaldia.

Erorketa eta zorabioen artean, momentu onak eduki zituzten. Adibidez, Christina Aguilera, Bon Jovi, Anastasia edota Phill Collins egon zirenean. Gauza hauengatik, taldea batu egin zen, baina azken egunetan Ainhoa beste partaide batekin haserretu da.

Programa hau egunero aurkezten da, iaz bezala, TVEko bigarren katean 21:30etatik 22:00ak bitartean, eta astelehenetan TVEko lehenengo katean gala aurkezten dute, gidaria Carlos Lozano izanik.

Espero dugu aurten programa honek neska-mutilei musika munduan aukera bat emateko balio izatea, ez morboa aurkezteko.

GRAN HERMANO



Laugarren edizio honetan gauzak hobeto daudela dirudi Gudalix de la Sierra-ko etxean. Iazko edizioko umore txarrak kanpoan utzi dituztela ematen du, baina, gero eta gehiago umore txarra ateratzen ari dela dirudi.

Iazko frakasoan alde batera utzita, aurten Mercedes Milá bueltatu da programa hau zuzentzera. Partaideak ere desberdinak dira. Argazkian dauden bezala, Rocío, Mario, Judith, Desireé, Rafa, Gustavo, Ana, Sonia, Pedro, Matías, Nacho eta Inma dira.

KOMEKOKOS



Egoera hau dago etxean, alde batetik “glamour pandi” dago (Rocío, Gustavo, Inma, Matías eta Pedro), beste alde batetik, Judith, Rafa eta Desiree daude, hauek “vici pandi” osatzen dute. Nacho, aldiz, neutrala da. Taldeak tabako kontuengatik sortu dira; izan ere, Judithek eta Desireek tabakoan gastatu zuten eta ez zuen jatekorik.

Amodio kontuak ere present daude etxean. Inmari Matías gustatzen zaio eta arazo horiengatik, Anak etxea utzi izan behar du. Ikusleek Matías eta Anak igerilekuan izan zuten erromantzea ikusi zuten eta Ana kalera bota zuten. Nachok eta Desireek bere erromantzea eduki dute. Bi alditan, larrua jo zuten.



Ikusten da programa hau morboa emateko eginda dagoela. Gainera irabazleari ezer egin gabe, 300.000 euro baino gehiago emango dizkiote. Gu ere joango ginateke txorradak egitera telebistara diru horren truke!!!!!!

JAKIN-MINA



Aintzane Artano



Idoia Fernández

Ana Bermejo



**Munduko
Bosgarren
Trinkete
Txapelketako
txapeldunordea**

Ana Bermejo hamazazpi urteko altzatarra dugu, Institutuko kidea, eta batez ere txapelduna. Izan ere, Uruguain jokaturako Munduko Bosgarren Trinkete Txapelketan bigarren gelditu baitzen 22 urtetik azpikoen mailan.

Kirol hau, trinketea gomazko pilotarekin, ez da aski ezaguna; horregatik, pasilloetan despistatuta ikusi dugun batean harrapatu dugu eta honako galdera hauek egin dizkiogu. Baita berak txintxo erantzun ere.

Milesker.

JAKIN-MINA



1. Azal diezagukezu nolakoa den kirol hau?

A.- Lau paretako frontoi itxi batean jokatzen da; ezkerreko paretaren ondoan teilatutxo bat dago. Bertatik ere ibil daiteke pilota. Gero, frontisa eta eskubiko beste pareta xafra baten moduan elkartzen dira, "fraide" izena hartzen du txoko horrek. Pala, berriz, ohikoa baino arinagoa da, estuagoa eta zabalagoa da, eta xafra astunez osaturik dago. Pilota ere arina da.

2. Nola atera zitzaizun kirol hau egiteko aukera?

A.- Orain dela bi urte hasi nintzen, ezagun baten proposamenaren ostean.

3. Zein da orain arteko ibilbidea?

A.- Hasi nintzenetik lau txapelketatan bakarrik hartu dut parte. Bi aldiz, Gipuzkoako Txapelketan, behin Euskal Herrikoan eta beste batean Mundukoan. Mundial horiek Uruguain izan ziren duela urtebete, eta bertara Frantziako, Kubako, Venezuelako, Argentinako, Mexikoko eta bertako ordezkariak joan ziren. Nik, Espainiako selekzioarekin joan behar izan nuen, Euskadikoa ez baitago onartuta mundialetan, nahiz eta jatorriz kirola Euskal Herrikoa izan. Azkenik, txapeldunorde gelditu ginen taldea osatzen genuen lau neskek.

4. Zein izan duzu azken lehiaketa?

A.- Euskal Selektzioaren aldeko partidu bat jokatu nuen bertako kidea bainintzen.

5. Non entrenatzen zara?

A.- Uruguaira joan aurretik, Iruneraino joan behar izaten nuen entrenatzera, baina gero ostiraletan Donostian entrenatzeko aukera izan dut. Bestalde, frontoi normaletan ere entrenatzen dut, astean zehar, Altzakoan eta Intxaurrendokoan, esate baterako.

6. Trinketean jokatzen duten emakumeek, zure ustez, eskubide gutxiago al dute?

A.- Trinketean, orokorrean, bai. Baina gure modalitatean neskek eta mutilak berdin aritzen gara. Orokorrean, dena dela, frontoian neskek ez dute inolako laguntasunik.

7. Zer esango zenieke gazteei trinketean jokatzea?

A.- Bada, kirol guztiak direla interesgarriak eta politikak, ez bakarrik futbola eta saskibaloia. Zerbait desberdina egitera bultzatuko nituzke, trinketea ez bada, pala, adibidez. Horrela, gainera, gutxi garez, aukera gehiago txapelketetara joateko eta bidaiatzeko.


Anak beti gustukoa izan du kirola egitea; lehenengo saskibaloian ibili zen; orain, honetan; egun batean aldatuko balu, ordea, mendiaren inguruko kirolen batera joko luke.

Gehigarria



Altzan gure saltsan

Gehigarri honekin Gaztel aldizkariak beste aurrerapauso bat eman nahi du. Atal berri honetan auzoko berriak ikasleon ikuspuntutik aztertuta ekarri nahi ditugu: gazteen eskakizunak, arazoak, elkarrizketak, txutxumutxuak, e.a. Altzari buruzko ikasleon iritzia jasotzeaz gain, auzoan zehar ezagutarazi nahi ditugu. Hori dela eta aldizkaria auzoko zenbait lekutan banatu nahi dugu. Aipatu asmoa betetzeko aldizkariaren ale gehiago atera beharko ditugu eta ondorioz imprimaketa lanak asko garestituko dira. Gastu horiei neurri batean aurre egin ahal izateko, gehigarri honen barruan auzoko saltokiei iragarkiak jartzeko aukera eskainiko diegu.



Nahi al duzu parte hartu gehigarria osatzen? ba al daukazu auzoari buruzko berri interesgarriren bat? nahi al duzu zure iritzia eman, elkarrizketaren bat egin...?

Izan zaitez kazetari!!!

AUDITZ AKULAR PROIEKTUA

AuditZ Akular, orain arte ukitu ez den paraje berde eta polit batez osatua dago.

Horren da ezezaguna non baserritar batzuek oraindik ere argitu behar duten AuditZ Akularren gaudela, bertara ailegatzeko ez baitago ez kartelik ez eta seinalerik ere.



AuditZ Akular alde batetik autopista zaharrak mugatzen du eta bestetik Molinaok . Bertan zuhaitz batzuk eta errekaak daude, azken hauek begibistaz ikusi ezin direlarik. Paraje honetan, jende gutxi ibiltzen da.

Alde eta kontrako jarrerak azaldu dira, eta etorkizunean ikusiko dugu zer gertatzen den proiektu eztabaidatsu honekin.

**Altzan
gure
saltsan**

Parajea, Pasaia eta Altza bitartean kokatuta dago eta badirudi bere inguruan sortu den polemikaz ohartzen ez dela.

Udaletxean eztabaidak nagusi dira PSE-k egindako proiektu honekin, babestutako 2500 etxebizitza egiteko. Komunitateak erabiltzeko ekipamenduak eta Altzarako bide sareen hobekuntza ere proiektu honekin bat datoz.

Jende askok oraindik ez daki nolakoa den auzo berri honen proiektua, eta horregatik komenigarria izango litzateke agintariek herritarrei zehaztaperen gehiago eskaintzea .

AuditZ Akularrera joateko bideetako bat Kasko Zaharretik abiatzen dena da. Bide horretatik jeitsita, zuhaitzen artean zenbait baserri ageri dira. Baserriez aparte zenbait negutegi eta abere izaten dira; normalean, artalde batzuk egoten dira.



Gazte!

altza
institutua

TOMASENE BASERRIA



Tomasene baserria, "Casares" kultur - etxearen aurrealdean aurkitzen da.

Etxeak jasan duen hondamena hain da nabaria, non bere teilatuaren zati bat behera etorri den. Hori ikusita Udaletxeak baserriaren egoera berrizteko planak jarriko ditu martxan eta plan horien arabera, baserria "Casares" kultur etxearen zati bat izatera pasako litzateke. Bertan, liburutegi eta areto nagusi bat edukiko lituzke.

Egokia litzateke eraikuntza berri honek lehenagoko egitura mantenduko balu, hau da, baserri kutsua mantentzea.

Altzan gure saltsan

FIBRA OPTIKOA

Gure auzoan ari dira zuloak irekitzen Euskalteko "fibra optikoa" instalatzeko asmotan.

Berri ona da gaurkotasunaren zirimoloan sartzen ari garela jakitea. Dena ez da hain erraza, jende askori bidali diote eskutitza etxera eskaintza bat egiten, eta jendearen dudak ez dira nolanhikoak. Zertarako balio du kablearen bidezko telebistak? Seguruak al dira inbertsio hauek? Zenbat balio du hilabetero? Egia da gero internet, eta tb-interaktiboa erabiliko ditugula?

Bakoitzak erabaki behar du zertan gastatu dirua, aukera hobea daukate etxe berriak direnean, etxe zaharretan zulo asko egin behar omen da.



JOSE LUIS JAUREGUI
REPRESENTACIONES

Especialidad en :



Bertsolari Txirrila, 66
Tel.-Fax 943 391 899
Móvil 670 391 899

ALZA
20017 SAN SEBASTIAN

LAU AIZETA PARKEA

Lau Aizetako parke honetara, bai Altzatik bai Larratxotik iritsi gaitzke.

Leku hau, joan den ekainaren 15ean ireki zuten, bisitatu nahi duen edonorentzako. Gaur egungo itxura hartu arte, aldaketa handiak egin izan behar dira, lehen zabortegia eta baratza baitzeuden.

Altzan gure saltsan



Nahiz eta lekua eraldatu, bertan zeuden zuhaitzak mantendu eta espezie berriak landatu dira.(pagoak, altzak, gereziondoak...)

Parkean zehar eserlekuak, mahaiak eta umeentzako jolastoki xebreak jarri dituzte.

Itxura dotorea izan arren badaude zenbait gauzak hobetu daitezkeenak, hala nola:

- 1.- Euria egiten duenean lur jauziak izaten dira, malda handiko aldapak harrizko hormez berrindartu ez direlako.
 - 2.-Beharrezkoak dira ura bideratzeko ubideak, estolderia eta bordiloak.
 - 3.- Errekako bazterrak garbitzea komeniko litzateke.
 - 4.- Usain txarrak ez dira desagertu.
 - 5.- Iturri ederra izan arren bere funtzionamendua oso txarra da.
 - 6.-
- Bestalde, ez legoke gaizki txorientzako habiak jartzea eta baita zuhaitz espezien izendatzea ere. Parkea ez dago guztiz bukatuta baina honek eskaintzen dizkigun abantailaz gozatzeko aukera dugu. Bukatzako, ez legoke gaizki esatea, **parkea zaintzea denon ardura dela.**



IPUINEN TXOKOA

Poesiak

Ipuinak bukatu zaizkigu. Ea gehiago egiten dituzuen! Bitartean, poesiak ere baditugu, eta poesiak, batzuetan, ipuin txikiak dira, txiki eta hunkigarriak. Ondorengo hauek ikusi besterik ez dago.

MUNDUA ETA GU

*Erlojuak denbora ematen du
neska-mutilak ohi dira maitemindu
eta ipuinari jartzen zaio izenburu.*

*Azterketa gaizki edo gainditu,
umeak parkean jolastu
gu ikasten aritu.*

*Eguzkiak bizkarra berotu
ilargiak iluna argitu
izarrek zeruak apaindu.*

*Irakasleak haserretu
baleak itsasoan nagusitu,
txoriak bizimodua alaitu*

*...eta ni eta zu,
...eta zu eta ni.*

Saioa Agote

IPIUINEN TXOKOA

BAKARRIK

*Ni zutaz maiteminduta nengoen
baina zu beste batez muxuka,
oso gaizki pasa nuen,
bat eginik nengoelako.
Amets ere zurekin,
besarkada batekin.
negarrez esnatu naiz,
goibel,
eguna hastear dago,
eta zu,
lagunarekin,
eta ni
negarrez,
bakar-bakarrik.*

Yanire Alonso

EGUNEZ EGUN

*Egunez egun gehiago maite zaitut
gauza asko esan nahi nizuke,
zenbat denbora itxarongo dugu?
zu besarkatzeko irrikaz nago,
zu muxukatzeko,
dena lehen bezala izatea nahi dut.
maite zaitut.*

Yolanda Redondo

INFINITOA

*Zutaz pentsatuta,
dena zerua dirudi,
itsasoko uhinak ere
kontatuko nituzke
horrela ikusten da
gure maitasuna
infinitoa dela.*

Sara Díaz

MAITASUN BIKOITZA

*Nik maite zaitut
zu non zaude?
nik hitz egiten dizut,
zuk zer diozu?
nik hitz bat
esanahi birekin:*

*maite zaitut
esaten dizudanean
maitasun bikoitza da,
zatoz hona
esaten dizudanean
bizitza osorako da.*

Maidor Dominguez

GALERA

*Ikusi zintudanean,
Beldur nintzen ezagutzeaz;
Ezagutu zintudanean,
Beldur nintzen maitatzeaz;
Maite zintudanean,
Beldur nintzen edukitzeaz;
Eta orain,
Neurekin zaitudanean,
Beldur naiz galtzeaz.*

Sheila Franco

IPUINEN TXOKOA

SENTIMENA ZORROZTEN

*Eguzkia zeruan dago
uhinak itsasoan,
eta zu betirako
nire bihotzean*

*Eguzkia eta euria elkartu
ostadarra atera
zazpi koloreko zubia
Zeruan zehar doa*

*Olatuei begiratzean,
edo txoriak entzutean,
zutaz pentsatzen nago
denbora guztian.*

*Egun osoan zehar
eguzkia zeruan
baina gauetan
izarrak distiran*

Lorena Robles

LAGUNA

*Laguna,
lagun maitea
lagun mina
lagun latza
egunero
dut sentitzen
zure beharra.
lagun maitea,
lagun mina,
lagun latza,
bi alde dituzu:
bat gozòa
eta bestea
garratza*

Joseba del Río

EGUZKIA

*Eguzkia jaio da
laino zuritan
Mendiola gaina
daukat begi bistan.*

*Eguzkia urdin
zuhaitzak more
ardoa berde
tipula gorri
balitz egia
edo
balitz gezurra
haz dadila
ene sudurra*

Alberto Manuel

FOREVER

*Ikusten zaitudanean
ez dut pentsatzen bestetan,
ikusten zaitudanean,
bihotza dut zure menpean.*

*Maitasuna,
zu gabe
ez da ezer.
maitasuna,
zurekin
mila esker.
Maitasuna,
elkarrekin,
forever.*

David Moro

KONEXIOAK



Iñaki Caracena



Ander Pérez



David Hernández

www.audio.ya.com/txiripa/emails/email.htm

TXIRIPA

Ez dakizu zer egin interneten? Ez duzu aurkitzen zure lagunei bidaltzeko gauza barregarririk? Guk aurkitu dugun webgune honetan argazki, bideo eta istorio barregarriak aurkituko dituzu. Nahiz eta orrialdeak itxura txarra izan, oso barregarria da. Oharra: aldizkariko idazlariak ez dira irakurleen "barre atakeez" arduratzen. Ondo pasall!

www.elrincondelvago.com




Irakasleak hau irakurtzeaz abstenitu. Ikasleentzako bakarrik da.

Espero dugu orrialde zoragarri hau guztiek ezagutzea. Ezagutzen ez duzuenentzako, esan behar dizuegu, webgune honek estualdi askotatik aterako zaituztela. Guri behintzat baliagarria izan zaigu. Lan bat egin behar baduzu, "fotocopiadora" atalean sartu eta 29000 lan baino gehiago aurkituko dituzu, euskaraz eta gaztelaniaz. Adibidez, liburu bat bidaltzen badizute, eta ez baduzu astirik irakurtzeko, jarri liburuaren izena, eta lan mordo bat aterako da. Aukeratu bat, hobeto dagoena, eta gauzaren bat aldatu, irakasleak begiratzen dituztelako. Ez baduzue ezer aldatzen harrapatu zaitzakete, eta 0 bat jarri, beraz, kontuz ibili! Baina ez pentsa lanak bakarrik daudela. Gainera, postalak, testak, txatak, txistek, jokuak, txuletak egiteko aholkuak... aurkituko dituzue. Bidal itzazu zure lanak besteentzat lagungarriak izan daitezkeelako. Baina kontuz ibili. Orrialde hau larrialdietarako bakarrik da, ez ohitu erabiltzean; hobe da liburua irakurtzea, kopiatzea baino. Baina ez larritu, lan bat ez baldin badago, beti izango duzu "gaixo" jartzeko aukera, edota lagun bati eskatzekoa!!



LABURREAN

ZINEA EUSKARAZ: "LEKUKO BAKARRA"



Harrison Ford
Kelly McGillis
1985. Bi Oscar

LEKUKO BAKARRA

Hizkuntza Normalkuntzak antolatu duen "Zinea Euskaraz" egitasmoaren barruan, hau izan da lehenengo pelikula. Hona hemen Rosa Vicentek egindako Kritka



Rosa Vicente

2. ZEIN DA GEHIEN GUSTATU ZAIZUN PERTSONAIA? ZERGATIK? ZER EGITEN DU BEREZIKI?

Polizia (John) gustatu zait. Bere lana ondo egiten du, lekukoa eta bere familia ezkutatu. Beti dago haiek babesten eta kontu handia izaten du umearekin. Gainera Amishek sektako jendeari laguntzen dio eliza egiten eta beste erlijioetako jendeaz babesten ditu.

3. AIPATU ITZAZU PELIKULAREN PASARTE HARRIGARRIENAK, GOGORRENAK, HUNKIGARRIENAK.

- Niretzat pasarte gogorrena polizia gaiztoak beste baten laguntzaz polizia bat hiltzen dutenean eta umeak dena ikusten duenean, gero ondoko komunera joaten denean.
- Hunkigarria ikusi dut gaiztoak Rakel-en etxera joaten direnean eta John beraiekin borrokan aritzen denean. Ezkutatzeko joku batean balira bezala. Baita umeak gaiztoaren argazkia ikusten duen ere.

1. EGIN EZAZU FILMEAREN KRITIKA

Nire ustez pelikula oso ona da. Errealitatearen gaiekin jokatu du, adibidez, erlijioa eta horren inguruko gatazkak, hilketak... Benetan gertatzen dena oso ondo azaltzen dute.

Aktoreen lana bikaina da, bakoitzak pasatzen ari den unea oso ondo interpretatzen du. John eta Rakel elkarrekin ezin egotea erlijioarengatik oso garbi ikusten da eta irrika hori nabarmentzen da.

Gero umeak, nire ustez lan ona egiten du. Hilketak ikusten duenean nabarmentzen da izaturik dagoela, baina, niretzat pixkat bat gehiago egongo beharko litzateke.

Filmeak une dibertigarriak ditu, dantza egiten daudenean, adibidez, baina orokorrean, istorioa es da barre egitekoa. Horrela ondo dago, bestela oso astuna izango litzateke filmea.

Alde batetik eszenarioak eta giroak gustatu zaizkit, baina, beste alde batetik, polizia gaizto eta onaren aurkako lehenengo topaketa parking batean izan zela konturatu naiz. Eszena hori zenbait filmetan agertzen da, aparkalekuan tiroketa.

Hori da pelikulari buruz esan behar dudana guztia.



LABURREAN

Musikaz blai: MTV sariak

Duela gutxi, Bartzelonako Palau Sant Jordi izandako festa ikusgarrian, MTV sariak banatu ziren. Aurtengo sari-banaketan, EMINEM izan da aipatuena hiru sari jaso baititu. Hona hemen sarituen zerrenda:



Pablo Ocampo



Germán Villegas



- 1) Albunik onena: EMINEM
- 2) Hip Hop erako abeslaririk onena: EMINEM
- 3) Gizonezko abeslaririk onena: EMINEM
- 4) Dance abeslaririk onena: KYLIE MINOGUE
- 5) Pop abeslaririk onena: KYLIE MINOGUE
- 6) Talderik onena: LINKIN PARK
- 7) Kantarik onena: PINK - Get the party started
- 8) Zuzeneko abeslaririk onena: RED HOT CHILI PEPPERS
- 9) Emakumezko abeslaririk onena: JENNIFER LÓPEZ
- 10) Espainiako abeslaririk onena: AMARAL

BA AL DAKIZU:

- Datorren maiatzean **Bruce Springsteen** Donostiara ekarri nahi dutela.
- **Nick Hansonek**, Pink Floyd-eko liderrak musika estilo berria asmatu duela, eta Ganbera Rock deitu diola.
- **Marc Knoflerrek**, Dire Strait taldeko lider ohiak, 30 urte eta gero atera duela bere disko berria
- **Alex Ubagok** jarri duela Disneyko azken filmaren musika.

GAZTE ALDIZKARIAREN OHARRA:

Alex Ubagori elkarrizketa egin nahi diogu Gazte! aldizkariarako aspaldian, baina ezin izan dugu orain arte harrapatu



LABURREAN

Eguzki Lore irratia Terra Mitikan



Maiatzean Radio-Euskadik "Bilin-Bolon" irrati txapelketa antolatu zuen. Bertan eskola pilok irratsaio bat prestatu genuen eta Eguzki Lore irratikook, hau da, Altza institutuko irratikook, lehenengo saria eskuratu genuen; Terra Mitikara bidai. Urriaren 17tik 20ra iraun zuen bidai honek eta irratiko lagunok Terra Mitika parkea ezagutzeaz gain, Benidorm ezagutzeko aukera izan genuen. "Hotel internacional" izeneko bi izardun hotelean izan ginen eta Arriaga konpainiako autobus batek eraman gintuen Donostiatik Benidormera. Gurekin batera institutuko irratiko bi irakasle joan ziren, Gotzone Imaz eta Gregorio Gálvez. Primeran portatu ziren gurekin eta eskerrak eman nahi dizkiegu irratiko ikasleok!

Xabier Bermúdez
Itziar Ferreira
Aroa Barrenetxea

Ikasketa bidaiabokata goxo-goxoak

Zer?? Oraindik ez dituzula probatu guk egindako bokata goxoak?? Etorri ba eta ez zaizu damutuko. Denetarik daukagu, ikusi eta erosi: txorizozkoa, mortadelazkoa, urdaiazpikozkoa, urdaiazpiko eta txorizozkoa, gazta eta mortadelazkoa, saltxitxoizkoa, urdaiazpiko eta gaztazkoa, saltxitxoi eta txorizozkoa, gazta eta saltxitxoizkoa, saltxitxoi eta mortadelazkoa, ogi hutsezkoa...Nahi adina aukera, egin ezazu zeurea!!

Saski eder baten boletoak ere ari gara saltzen eta Santo Tomas egunean Gipuzkoa emparantzako bi lekutan egongo gara Alzako txistorra ezinhobea, Errioxako ardoa, Hernaniko sagardoa eta "gure" kalimotxo paregabea eskaintzeko prest. Hurbildu zaitetzte gazteak eta ez hain gazteak. Ekarri zuen lagunak, senideak, neska-mutil lagunak, amaginarreba...Erosi eta dastatu gure kalitatezko produktuak, beste guztia gure kontu.



Daviden burutazioak

Irakasleek gelatan maskotak eukitzen uzten digutenean, gure gelan, 2C-n, zer animalia izango dugu maskota? katu bat? - Maitaneri gustatuko zaio- ala untxi bat, nire gustua egiteko.

Gaur nik asko maite ditudan abere polit batzuei buruz hitz egin nahi dizuet:

ERBIAK ETA UNTXIAK

Asko daude baina zerutik erraz antzematen zaie: belatzek eta arranoek berehala ikusten dituzte, eta haien menpe izaten dira askotan. Baina lurrean ere badira ugaztun maltzurak, erbiak eta untxiak harrapatzeko prest. Hauek dira: otsoa, azeria...

NON BIZI DIRA:


Normalean joaten dira baso edo zuhaixkak dauden lekura. Baina bere bizilekua, pareta bat bezalakoa da eta hor zuloa egiten dute.

Denetatik jaten dute: hostoak, haziak eta baita ere landareen sustraiak.


Erbien eta untxien kumeak jaiotzen dira ile gutxirekin eta ia-ia ez dute ikusten. Lau edo bost aste pasata, kume guztiak elkarrekin jada jolasten ari dira zuhaixketan.



David Díaz



Untxia



Erbia

Erbiek eta untxiek, gaixotasun txarra daukate. Eta nola-nahi gaixotasuna kentzeko zientifikoak asmatu dute txerto bat.

Orain zientzilariek hartzen dituzte erbiak eta untxiak, txertoa jarri eta aske gelditzen dira arriskurik gabe. Untxiak eta erbiak, gaixotasunaren menpe geratzen badira, egunak pasa eta begiak puzten dira ikusi ezinik geratu arte; gero joaten dira euliak begietara untxia edo erbia hil arte. Gixajoak!! Ingurugiroa ere zaintzea komeni da, inguru kutsatuak ere kalte egiten baitie untxiei eta erbiei.

Twiste kontari

Txerrien jana

Bazegoen baserri batean gizon bat txerriak hazten zituena, eta familiakoei sobratutakoa ematen zien jateko.

Egun batean inspektore bat joaten zaio. Ea zer ematen dien jateko galdetzen dio. Sobrak ematen dizkiela esaten dio, eta orduan multa bat jartzen dio hau esanez:

- Munduan zehar txerri asko ari da hiltzen elikadura txarragatik, eta zuk sobrak ematen dizkiezu?!!

Harrezkero, gure gizonak gauza onak eta gozoak ematen dizkie txerriei.

Hurrena beste inspektore bat etortzen zaio, eta beste honek ere berdina galdetzen dio, eta gizonak esaten dio, ba, hori, gauza onak eta gozoak, besterik ez diela ematen. Inspektoreak, orduan, esaten dio:

-Munduan umeak goseak hiltzen eta zu, berriz, txerriei munduasn goserik ez balitz bezala, txerriak enpatzatzen. Isuna jarri beharko dizut!!

Handik egun batzuetara beste inspektore bat joaten zaio, eta ohiko galdera egiten dio, ea zer ematen dien jaten txerriei. Eta gure gizonak, orduan, hainbeste isun eta hainbeste inspektoreez aspertuta:

- Ba, nik hogeituro ematen dizkiet eta beraiek nahi dutena erosten dute.

Mikel Pino

Rubiarik jakintsuena

Munduko rubiarik jakintsuena aukeratzeko ari ziren.

Aurkezleak galdetzen dio lehenengo partaideari:

-Zenbat dira bi gehi bi?

-Bost?-erantzuten dio.

-Ez!!!-esaten du aurkezleak.

Eta atzeko partaideek esaten dute:

-Beste aukera bat!!! Beste aukera bat!!!

-Beno, zenbat dira bi gehi bi?

-Hiru?-erantzuten dio.

-Ez!!!

Eta atzeko partaideak oihuka:

-Beste aukera bat!!! Beste aukera bat!!!

-Azkenengo aukera, pentsatu ondo, zenbat dira bi gehi bi?

-Lau?-esaten du neskek.

Eta atzeko neskek:

-Beste aukera bat!!!

Eneritz Sánchez

Krema eskuetarako

Medikutara joan da Mikeltxo eta:

- Mediku jauna, gaur hiru neska datozkit etxera gauean eta ukendu edo edabe bereziren bat prestatu behar didazu, denen lanak behar bezala bete ahal izateko. Badakizu, lehenik bat, gero bestea, gero hirugarrena, gero...

- Hiru neska! Hau zerrria, Fenomeno bat zara, zu, Baina hirurekin...?

- Bai, bai, hirurekin.

Medikuak nahasketa berezi bat prestatu dio, tipula eta abarrez egina:

- Honekin arazorik ez duzu izango, baita gau osoa "lanean" ematen baduzu ere, beti "gerrarako" puntuan egongo zara.

Joan da Mikel, eta hurrengo egunean, goizean oso goiz, bere bulegoan aurkitu du medikuak, lur jota, sekulako begizuloekin, gehiago ezin duela, lehertua. Medikuak:

- Eta? Zer moduz joan da?

- Zaude isilik, gizona, eta emaidazu kremaren bat eskuetarako. Ez dira etorri eta!

Idoia Martínez

Hilerrian

Hiru lagun joan dira parrandara, eta bueltan pixagurea sartu zaie. Eta ez zuten ikusten komunik inguruan, begiratu batera, begiratu bestera, eta komunik ez. Orduan horma bat ikusten dute, salto egiten dute eta hasten dira pixa egiten, eta batek esaten du:

-Aizue, konturatu al zarete hilerri batean gaudena?!!

Eta denak ihesi ateratzen dira, bakoitza bere etxera.

Hurrengo goizean euren emazteak telefonoz hizketan, eta batek galdetzen dio beste bati:

-Nola heldu zen zure senarra, atzo?

-Kaltzontzilorik gabe iritsi zen. Eta zurea?

-Nireaa ere kaltzontzilorik gabe, eta zapata bat falta zitzaion.

Eta hirugarren emazteari galdetu zioten:

-Nola heldu zen zure senarra, atzo?

-Lepoan zinta bat zuela, eta zintan jartzen zuela "Zaragozako zure lagunak".

Miren H.T.

Maisu gaiztoa

Mutikoa etxera iritsi da eskolatik eta amari doakio, negarrez.

- Baina zer duzu, semetxo?

- Maisuak etengabe erasotzen nau!

Biharamonean ama doa haurrarekin eskolara eta irakasleari:

- Aizu, zergatik egiten diozu gogor gure umeari? Gaisoa izugarri ari da sofritzen...

Irakaslea harrituta dago.

- Ezin dut ulerte, etxekoandre. Begira, nahi baduzu, gera zaitetz eskola barruan eta ikusiko duzu, denok ere oso lasai egoten gara.

Ama eseri da eskolako bazter batean eta hasi da eskola.

Ordu beteren buruan, mutikoari galdetzen dio maisuak:

- Ea, Asier: esaiguzu zenbat den 2 gehi 3.

- Ikusten, ama? Hasi da berriro!

Sonia García

Xake partida

George Bush eta Bin Laden ari dira, bien artean xakeko partida bat jolasten.

-Nork irabaziko du?

-Bin Ladeneke, zeren eta...bota ditu bi dorreak.

Oscar Luque

Basamortuan

Basamortuan zehar badoa gizon bat, eta nekatuta dago, eta ikusten du oasis moduko bat, denda eta guzti, eta harantz jotzen du. Sartzen da denda batean, eta galdetzen du:

-Hemen, zer saltzen duzue?

-Hemen, gameluak.

-zenbat balio dute?

-Bi euro.

-Emaidazu bat, mesedez!

Dendariak, bide batez, gamelua nola ibiltzen den esaten dio:

-Begira, oso erraza da. "UF" egiten duzunean, martxan hasiko da. Gero, azkarrago joan nahi baduzu, "UF-UF" egin behar duzu, eta azkenik, "UF-UF-UF" egin zere, ziztu-bizian joango zaizu gamelua.

Horrela, ba, gure gizona badoa bere gameluekin, gainean jartzen da, eta esaten du : "Uf", eta gamelua martxan jartzen zaio. Martxa bizkortu nahi du, eta horretarako "Uf-UF" esaten du, eta gamelua ta-ka-tan-ta-ka-tan, bizkorrago doa. Konforme ez, eta "Uf-Uf-Uf" esaten du, eta gamelua ziztu bizian hasi da, eta bat-batean gizona konturatzen da, pixka bat haruntzago amildegi bat, barranko bat, dagoela, eta gamelua bizkor-bizkor hara, eta gizonak gamelua gelditu nahi, eta ez daki nola gelditu, eta estuasunean errezatzea pentsatzen du, eta azkenean esaten du "AMEN" eta orduan gelditzen da justu-justu amildegi ertzean.

Gure gizona, orduan, hainbeste bildurtu ondoren, azkenean lasai dago, eta esaten du: "Uf", eskerrak!!

Erreka Utrera

Urko Ruiz



Zorionak eta urte berri on!!

Igor Arrizabalaga



kutxa

gizarte ekintza

EGUZKI LORE



IRRATIA

www.eguzkilore.es,mn
eguzkiloreirratia@hotmail.com

ALTZA INSTITUTUA

SARIKETA

Galdera: Non lortu zuen Ana Bermejok munduko trinkete txapeldunordearen

lomina: _____

ZENA: _____ GELA: _____

SARIA: Jousilouli taldearen azken CDa